

JANTOKIA 2020-21

1. Jankide motak:

- Ohikoa: ikasturte osoan zehar gutxienez astean behin jantokia erabiltzen dutenak.
- Tartekako ohikoa: lan- edo pertsonal-arrazoia direla medio, ikasturte osoan zehar, astez aste edo hilez hil txandaka ibil daitezkeen ikasleak.
- Noizbehinkakoak: egun solteak, aurreko irizpideak bete gabe. **IKASTURTE HONETAN EZ DA AUKERA HAU EMANGO**, ez dago egun solteak erabiltzeko aukerarik.

KUOTAK

Ohiko bazkaltiar garraiatuak:	3'30 euro
Ohiko bazkaltiar ez garraiatua:	4'60 euro

Ohiko bazkaltiarra da urriaren 15erako izena eman duena. Egun horretatik aurrera, ez da bazkaltiar berririk onartuko

2. **Ordainketa mota** hauxe izango da: ikasturte osoko kostea kalkulatu da erabiliko diren egunen arabera, eta **10 kuota berdinetan** banatu da, hilabeteko jantoki-egunak direnak direla.

Benetako kostearen eta ordaindutako kuotaren artean aldea egongo balitz, **erregularizazioa ekaineko azken kuotan** egingo litzateke.

Erreferentzia gisa, ikasturte osoan zehar egunero bazkaltzen duenak zera ordaindu beharko du: 81 euro inguru, ez garraiatua bada, edo 58 euro inguru, garraiatua bada. Erreziboa **hilabetearen azken egunean** kobratuko da.

3. Jantokiko **kuotaren zati bat itzuliko da** honako kasu hauetan:

a) Ikasle-kolektibo bat jantokira joaten ez denean, aurrez onartutako eta programatutako jarduera osagarriak egin eta piknik zerbitzurik behar ez badute, beti ere, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazten bazaio (**baserriak edo ikastetxetik kanpoko egonaldiak**). Aurten ez da gertatuko.

b) Jankidea **ez bada astebetez edo aste gehiagoz jarraian jantokira joan behar**, beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.

Bi kasu horietan itzuli beharreko zenbatekoa kasu bakoitzean ikasleak ordaindu beharreko **eguneko kuotaren % 50a** izango da, hau da, jantokia erabili ez direneko egunei dagokien kuotaren erdia. Bekadunei ez zaie inolako itzulketarik egingo.

4. Ikasleren batek **menu edo dieta berezia** behar badu, janari-alergia edo antzeko arrazoiak direla eta, **mediku-txosten eguneratua** aurkeztu behar du. Txostenak honako hauek zehaztuko ditu: bai bazkaltiarrek alergia dien janariak, baita bazkaltiarrek alergia dion janaria ustekabeen hartuz gero erabili edo jarraitu beharreko protokoloa ere. Egoera honetan dauden ikasle guztiek aurkeztu behar dute txostena, hau da, berriek zein aurreko ikasturtekoek.

5. **Eguerdian debekatuta dago Ikastolatik irtetzea**. Irten behar izanez gero, aurretik abisatu da eta ikaslearen bila baimendutako pertsonak baino ez dira etorriko.

6. Jantokikoak ez diren ikasleak ezin dira eguerdian Ikastolan egon eta ez dira Ikastolara sartuko txirrinak jo arte.

7. **Ostiraletan** ikasleak jasotzeko ordua: 14:30ean. Haur Hezkuntzako ikasleak ohiko irteerak erabileko dituzte. Lehen Hezkuntzakoak patio estalian bildukodira.

8. Ikasturte honetan **txanda bi** egongo dira **jantoki bakoitzean**:

- Haur Hezkuntzako ikasleek 1. txandan bazkalduko dute. Txikienek, 2 urtekoek, bazkaldu ostean lo-kuluxka egitera joaten dira.
- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek 2. txandan bazkalduko dute Haur Hezkuntzako jantokian.
- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek 1. txandan bazkalduko dute Lehen Hezkuntzako jantokian.
- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek 2. txandan bazkalduko dute Lehen Hezkuntzako jantokian.
- Ikasturte honetan ez da hortzetako eskuilarik ekarri behar.

9. **Bidezkoak ez diren jokabideak** gertatuko balira, honako prozedura hau erabiliko litzateke:

- Ikasleari ahozko abisua.
- Gurasoei komunikazio idatzia, zeina sinatuta ekarri behar den.
- Behin behineko kanporaketa.
- Behin betiko kanporaketa

10. Edozein iradokizun edo argibide nahi baduzue, **jantokiko arduraduna** den **Rikardo Muguruza**arengana jo dezakezue, 946707873 telefonoan edo posta elektronikoz rikardomuguruza@muskizkoikastola.eus.